

EÜSKALZALETZARZÜNA BASABÜRÜAN

Atharratze, 2003-IX-25

Jakes Sarraillet

Galtatürrik izan zeitan ager araztea zertan den eüskalzaletarzüna Basabürüan eta bereziki eskolan eta literatürgintzan. Bestalde deliberatü nüan ere bai bizi püblikoaren aipatzeak merexi züala zeren üdüri beitzait eüskalzaletarzüna etxearen edo eskolaren eremü hertsietan egoiten balinbada xahü dela.

Halerik ere ezin üka eskolak bereziki, izigarriko garrantzia badüala, XXI. mente honen hatsarrean hizkuntza baten iraüpenaren segürtatzeko: ikus delako hizkuntza «handiek» mündü orotako eskoletan erakatsirik eta ezagütürrik izaiteko egiten dütüen indarrak. Arren gure eüskara txipiarentako nola ez leiteke izan ber gaüza?

Düala urte bat eta zerbait haboro, mündü mailako erakunde batek (Unesco nik uste) hizkuntzen galtzeari бүrüz erran züan, nahi balinbada mintzaje bat bizi dadin, bere haurren %30-ek pürü eskolan ontsa ikasi behar düela.

Orai ikus dezagün Basabürüan gaüzak zertan diren. Gure eskualde txipian hiru eskola elebidün atzamaiten dügü, zaharrenetik berrienealat direnak: Alozeko ikastola, Atarratzeko eskola elebidüna eta azken sortüa, aurtenko sartzean bortak zabaltü beitätü Altzaiko eskola elebidüna. Hots, hiru eskola horrier esker Basabürüko haurren %25-ek eüskaraz ere bai zerbait ikasten düe, denboraren erditan!

Bestalde aipatü behar dira, ibilkari batek eskoletan emaiten dütüan eüskarako klaseak, Basabürüko eskola güzietan igaraitzez (Santa Grazi, Larraine, Montori, Ligi, Liginaga eta Gamere) bena astean oren bat edo biga baizik ez düe hartzen sistema horrekin hurrek.

Dena den, batean edo bestean, Basabürüko 10 urtez peko haurren %65-ak eüskarako kurtso zerbait ükeiten dü. Ez da aski prefosta, bereziki elebidün sailetik kanpo direnentako bena ezin daiteke üka, heben ere bai Eüskaldünek beren mintzajearen aldeko arrenküra badüela. Eskolarekin ürrentzeko, ez düit ahatze behar prefosta gure kolegioan, astean hiru orenez, gazteek hartzen ahal dütüen eüskarako klaseak (%45).

Literatürgintzan ere bai, amini bat ikertzen hasi ondoan, aitortu behar düt, hatsarrean nik uste beno izen haboro zerrendakatü ahal üken düdala, nonbait horrek erakasten beitu, eskoletako haur eta gazteek eüskaraz irakurtzen ikasten balinbadüe pasta badüküela. Izen aipatzen hasten den orok prefosta irrisküa hartzen dü norbaiten ahaztea, alabena egin düt eta ihork ere ez lüke baztertürük senditü behar. Lehen lehenik Eüskaltzaindiko jenteak aipatüko düüt, Txomin Peillen eüskaltzaina eta Junes Cazenave ohorezko eüskaltzainaren ize-nak besterik gabe emanez, mündü orok ezagützen beitätü. Bena besterik ere bai bada eta nahas mahas aipa nitiro Niko Etxart edo J. Louis Aranbüri-Bidabe kantore egileak, Robert Larrandabüri eta J. Dominique Iriart berriki Basabürüko bortüetaz libürü eder bat argitalatü düenak, Socaros kazetaritzan ari dena eta nihaur ere bai, apaltarzün handienarekin ützülpengintzan edo nobela llabür idaztera iseatü düdana.

Azkenik, erran nüan bizi püblikoa ere bai aipatü behar zela eta hala eginen düt zeren eta hor baita hobekienik ikusten zer lekü düan egiazki hizkuntza batek herrialde batetan. Aitortü behar da gurearena ez dela izigarri handi, bena bi gaüzetan pürü merexi dü, nik uste aipatzea, hau da bide seinaletan eta kültür egintzetan. Gure bide bazterretan geroago eta üsüago ikusten dütügü elebidün bide seinaleak eta amini bat pentsamentükan hasten balinbagira, nork erranen züan, orai dela hogeï urte hola zatekeala? Arren aitzina ari gira. Ürrentzeko, nola ez aipa prefosta, Xiberoako jei nausiak diren pastorala eta maskaradak? Non heben beno hobeki begiratü dira eüskaraz emaiten diren üsantxa aldian zahar eta modernizatü horik? Ihon ere, eta hori zertako? Zeren heben beita hobekienik begiratü jei horien ekei baitezpadakoa den eüskara.

Hitzaldï xüme honen ürrentzeko, hona zer diren bereziki azpimarratü nahi nütükean bi gaüzak: jente ezkorrek ez bezala ene ustez, eüskararen aldeko kontzientzia pizten edo arrapizten ari da memento hontan Basabürüan eta probatzat düt Altxaiko eskolaren aurtenko ürratsa eta bestalde, xiberotar eta eüskaldün oroer eman nahi neikeien gomendio eta aholküa da, gure indarrak oro gazteer büriüz egin behar dütügüla, orotan eta beti eüskaraz elestatzez, bai hai-ekin, bai gure artean.